

Hala, izigarri gose den otso baten ixtoria bat.

Gaü batez, pützü baten zolan,

gazna bat ikusi dü.

Gaznaren atzamaiteko küpüstü da.

Küpüstü da , küpüstü eta plast !

Hurealat erori da.

Ordüan, ohartü da....

Banba ! Hala zea !

.... Ohartü da ordüan gazna

argizagiaren itzala baizik ez zela.

Kesü da, trenpan da, hoztürik da,

eta ez daki nola berriz goiti iragan.

Ah! Herots bat. Gaine hartan

norbait hüllantü da.

Xerri bat da.

"Zer ari hiz hor?" estonatü da xerria.

« Eh ! Franko ontsa nük heben. Fresk dük eta zera... eta gazna lodi
bat badük... aigü nahi bahiz ...»

« Bai bena nola eraitsiko niz ? »

« Sokari lot hadi » dio otsoak.

Hop! Xerria eraisten da.

Eta hop! Otsoa berriz goiti iragaiten da.

Xerria atzamaiten ahal düke....

Ez! Xerria, xerri bat bezain gizena,

Zalegi badoa.

ZIRRRIPITIT!

" Ai! Urdeal " dio xerriak ohartzen delarik

otsoak gezürra erran deiola.

Alimaleko gazna argizagiaren itzala baizik ez zen.

Hoztürik da eta kesü. Nola berriz goiti iragan.

Denbora badoa. Gero eta hoztürikago

eta gero eta kesüago da.

Otsoa desagertü da, argizagia ere. Berehala argitüko dü.

Ah! Herots bat.

Llapi bat da. Llapi familia bat.

« Hor to ! Bena zer ari hiz hor ? »

galtegin dü llapi aitak.

"Eh! Ontsa nük heben. Mainatzen nük,

igerixkan ari nük,

beno banoak zereneta garrota

pützü ororetan bezala, beroegi beita...."

" Zeren pützüa? "Llapiak oihüka.

" Garrota pützüa" xerriak orroaz.

"Nola eraisten ahal da ?"

" Garrota pützü batetara eraisteko,

llapi jauna, soka hartzen da!"

erraiten dü xerriak.

Hop! Llapiak eraisten dira.

Eta hop! Xerria iragaiten da.

« Hon deiala ! » dio xerriak.

Eta kasü asealdiari.

Klak ! Klak ! Llapiak hoztürrik dira.

Hortzak klaskaka eta prefosta,

garrota bihi bat ere ez.

Berriz iragaiten dira, beno ez izigarri,

izigarri gora.

Ah ! Urratsak !

Klak !Klak ! Otso bat da.

Hatsarreko otso hura,

zinetz-zinetz gose zen hura.

"Ha, ha! Zer ari zidee hor ?,

oihü egin dü otsoak.

"Oi, baheki zoin ontsa giren heben...."

"Et, et, et! Bai..... joka nüke

gazna lodi bat

badela he ? » arrapostü emaiten

dü otsoak, erri karkazaz.

"Ez, gaznarik ez dük, bena

zernahi llapi jateko " erraiten dü

abilki llapi aitak.

"Ez dütüka haboro maite?"

"Ez, to, eta nola !"

otsoak erriz leher eginez eta

arrazoa osoaren galtzez,

soka atzaman eta bere bürüa

pützüalat urtuki dü.

Hala ! Llapiak goiti badoatza.

Otsoak, iragaitean,

baten atzamaitea iseiatzen dü,

bena presanegi izatez,

zalegi badoa.

ZIRRIPITIT !